ASIA'KO Ego-eguzkialdean zalantza

Alderdi au 1954'gna arte Frantzia'ren mendean egon zan. Baiña alderdi aietako abertzaleak armetan zebiltzan komunisten laguntzarekin eta Frantzia beartua arkitu zan oiekin tratatu bat egitera. Ortarako Ginebra'n bialdu ziran eta an amalau nazioek izenpetutako tratatu bat egin zuten. Tratatu artatik lengo Frantzia'ren menpeko Indotxina izeneko estadutik lau estadu berri sortu ziran.

Camboadge: Erreiñu bezela 5.000.000 bizilagunekin. Asieran okzidentezalea, bainan gero bere askatasuna ondo zaindu naiena neutralidadera jo du.

Laos: Au ere erreiñua. 3.000.000 bizilagun. An ere asieran okzidentezalea. Baña laster azaldu ziran "Guerrilla" komunistak. Ordu ezkeroztik iru talde arkitu ditzazkegu ango politikakin: zearo okzidentezaleak, komunistak, eta neutralak. Gauzak geige gogortzen zijoazten eta orregatik Jinebra'ko tratatua izenpetu zutenak 1962'gn berriro bilduta Laos'ek neutrala izan bear zuala erabaki zuten. Ondorendik iru taldetako gizonek osatutako gobernu bat sortu zan. Orain gobernu au autsita arkitzen da.

Viet-nam: 1954'gna baiñan lenago emen izan ziran burrukarik gogorrenak eta geroztik ere bai. Jinebra'ko tratatua egin zanean bitan zatitu ta geldidu ziran.

Ipar aldeko Viet-nam: Komunisten estadue eta ordu ezkeroztik aldaketa aundirik izan ez duana.

Ego aldeko Viet-nam: Au okzidentezale bezela ikusten degu. Lengo urterarte Diem lendakariaren menpean egon zan, baiñan gero zearo diktadorea zalarik bota ta il egin zuten. Geroztik bi estaduko gotpeak izan dira eta orain Khan jenerala dago nagusi.

Bereala sortu ziran emen ere komunisten "guerrilla"k. Guerrilla oiek menderatzearren amerikanoak laguntza, armak eta gudariak ematen dizkio Ego aldeko Viet-nam'i.

2.—Iztegia Pathet-lao: Laos'ko komunistak, beste taldeak bezela, bere ejerzitua badute. Ejerzitu orren izena Pathet-lao da.

Viet-Cong au ere Ego aldeko Viet-nam'en arkitzen diran "guerrilla'ren izena da. Auek eta Pathet-lao'k Ipar aldeko Viet nam eta Txina'ren laguntza artzendute.

3.—Organizazioak Jinebra'ko tratuarena: Tratatu ori izenpetu zutenak batzorde bat bezela osatzen dute. Batzorde onek tratatu ori betearazitzeko mandatua du. Batzorde onen lendakari-kide Errusia ta Bretaña Aundia dira.

4.—Zer-ikusia duten nazioak.



Azio arteko komisioa

Asia'ko ego-eguzkialdean tratatu zaintzeko komisio bat osatu zuten okzidenteko estaduen, komunisten estaduen eta neutralen mandatariak osatutakoa.

Ipar-ameriketa: Ego aldeko Viet-nam'ekin oso osorik alkartua dago Viet-Cong'ek kontra darabilkiten gudan. Parterik interesantuena oraingoz elekzioak pasa bitartean beñepein, ez du itzegiterikere entzun nai.

Errusia: Jinebra'ko tratatuen lendakari-kidea. Orrek ere ura neutralitzazea nai du.

Txina: Gora-bera guzti auekbere egalean ari dira pasatzen. Oso osorik Viet-Cong eta Pathet-lao'rri laguntzeko dago. Jinebra'ko tratatua onek ere izenpetu zuan.

Frantzia: Jinebra'ko tratatuaren izenpelaria. Ango gauz guztiak konpontzeko berriro Jinebra'ko tratatua izenpetu zutenak bildu nai ditu. Alderdi aien neutralidedea nai du. Baita ere alderdi aiek Txina'rekin kontzerik gabe ezdagola konpontzerik esaten du.

Inglaterra: Ipar-ameriketarren joera berdin berdiña du.

5.—Gertaerak nola .

Ipar aldeko Viet-nam'go gudarako barku batzuek Ipar-amerikatako batzuek atakatzen dituzte bialdiz. Ipar aldeko Viet-nam'goak amerikanuen ontziak Ipar-Viet-nam'en uretan gendelako atakatu zituztela esaten dute. Amerikanoak berriz ezetz, etzeudela ipar Viet-nam'en uretan eta orregatik oiek egindakoa probokazioa zala.

Dagonilla'ren 5'an Jonshon lendakariak itzaldi batean amerikanoak orrelako probokazioak berriro gertatu ez ditezen Viet-nam'arren ontziek kalak atakatu zituztela esaten du.

GALDAKANO

NAZIO-ARTEKO UNEA

ERRUSIA'rentzat une txarra

Astebete ontan Une txarrenak pasatzen ari dana Errusia da Viet-nam'en gertatutakoekin. Alde batetik amerikanoak komunistekin gogor sartu dira ta Errusia komunista izanik ezin, baizik eta al dan geien komunista oien alde jarri bear. Bestetik berrizamerikanoekin daramakiten pakerako politika kropenitua arkitu zitekien ipar-viet-namdarrei gogorregi lagundu ezkero.

Gaiñera kontuan artu dezagun Errusiak aldederi aietan ezin dezakela ezer asko egin. Zergatik? Alderdi aietako komunistak Txina'ren agindupean arkitzen diralako. Orregatik komunistak an derabilzkiten joerak Txina'ren gogokoak bakarrik dira. Ta argi dago Txina ta Errusia oso onso konpontzen ez direla.

Ori dala ta Errusia'k Frantziak bezela elegin aundienak egiten ditu Jinebra'ko tratatuaren konferentzia biltzeko ta orrela Ego-eguzkialdeko Asia neutralizatzeko. Azkenean, asperturik, konferentzi orren lendakari-kide bezela beste kideari; Inglaterrari, adierazi zion, alegia, illabete ontan konferentzi ori biltzen ez baldin bazan lendakaritza zearo utziko zuala.

Ikusten danez joera zallak dauzka Errusia'k alderdi aietan. Badira pentsatu dutenak zalaparta guzti aiek apropos Txina'k eratuak izan diranak Errusia aukera gogorrak egin bearrean jartzeagatik.

Era guztietara Errusia'k oso legun eta zuhur jokatu du oraingo ontan eta prueba onekin garbi adierazi du aurrera jarraitu nai duala amerikanoekin elkar-izketa eta pakerako bidean.

RIKARDO ARREGI

GURELESA

GIPUZKOA'KO TA NAPARROA'KO ESNE ONENAKIN GERTUTAKO ESNEKIAK: ESNE PASTERIZATUA, ESNE SOILLA, ESNE-AUTSA, ESNE-GAIÑA, GURIÑA TA ABAR. EGUNGO EGUNEAN, LURBIRA OSOKO ERRI AURRERATU GUZIETAN, ONELAKO ESNE TA ESNEKIAK BAKARRIK ERABILTZEN DIRA

GURELESA

Oyal s. a.

OYAL ETA EFORRU ALMAZENA

PAREGABEKO TA BIKAINENAK

Telefonua 14304

Garibay, 4 - DONOSTIA

ERLOJUTEGI
BITXITEGI
ZILLARTEGI

LA JOYITA

Aldamar, 12
DONOSTIA
(Brecha ondoan)

OSBORNE Y C.ia S. A.

Coñac VETERANO

Coñac MAGNO

Coñac zarrak eta onak